AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2723

375/2012 EBAZPENA, apirilaren 23koa, Uribeko Eskualdeko zuzendari-gerentearena. Honen bidez, deialdi publikoa iragartzen da Uribe Eskualdeko Algorta/Bidezabaleko Lehen Mailako Atentzioko Unitateko buruaren lanpostua betetzeko.

Uribeko Eskualdeko Algorta/Bidezabaleko Lehen Mailako Atentzioko Unitateko buruaren lanpostua hutsik dagoelarik, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legearen (ekainaren 26ko 8/1997 Legea) 28. artikuluan, Hirugarren Arau Orokorrean ezarritakoarekin bat, eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko lanpostu funtzionalak arautzen dituen Dekretuan (uztailaren 19ko 186/2005 Dekretua) araututakoarekin bat, Zuzendaritza honek erabaki du deialdi publiko bat egitea lanpostu hori betetzeko izendapen aske bidez, ondorengo oinarrien arabera:

OINARRIAK

Lehenengoa.– Uribeko Eskualdeko Algorta/Bidezabaleko Lehen Mailako Atentzioko Unitateko buruaren lanpostua, Ebazpen honen bidez deitzen dena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko osasun-zerbitzu erakundeetako A1/B1 lanbide-taldeetako langile finkoek eska dezakete, betiere hurrengo baldintzak betetzen badituzte:

1.– Titulu hauetakoren bat izatea:

a) Medikuntza eta Kirurgiako lizentziatura, Familia eta Komunitateko Medikuntzako espezialitatean, baita Medikuntza Orokorreko medikuaren eginkizunak betetzeko ezarritako titulu, ziurtagiri edo diplomak izatea ere, Osakidetzako lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuko I. eranskinean aurreikusitakoaren arabera, edota Pediatriako espezialitatean.

b) Unibertsitate-diplomatura Erizaintzan.

2.– Hizkuntza-eskakizuna. 2. hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data: 2010-12-1.

3.– Esperientzia. 4 urteko esperientzia izan beharko dute, A1/B1 taldeetako zereginetan.

Bigarrena.– Interesatuek Uribeko Eskualdeko Pertsonaleko Zuzendaritzara bidali behar dituzte euren eskabideak (Alango K, 30, 48992 Algorta-Getxo) 10 egun balioduneko epean, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Bestalde, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (azaroaren 26ko 30/1992 Legea) 38.4 artikuluan ezarritako eran ere aurkez daitezke.

Hirugarrena.– Deialdi honetan parte hartu gura duten izangaiek curriculum vitae aurkeztu beharko dute eskabidearekin batera (aplikazio informatikoan beteta dutenek izan ezik), non Lehen Mailako Atentzioko Unitateko Kudeaketaren Memoria-Proiektua txertatuko baita, honako hauek jasoz:

– Titulu akademikoak.

– Orain arte betetako lanpostuak.

– Lanbidean eta kudeaketa sanitarioan daukaten eskarmentua.

– Ikasketak, ikastaroak, ponentziak, argitalpenak, hizkuntzak eta egoki iritzitako beste edozein merezimendu.

Eskabidearekin batera, eskatzen diren betekizunen eta aurkeztutako merezimenduen egiaztagiriak ere aurkeztu beharko dituzte. Halaber, argitalpenak, txostenak edota egokitzat jotako beste edozein agiri ere aurkez dezakete.

Laugarrena.– Deialdi hau Gerentzia honen ebazpen bidez ebatziko da. Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusian, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Getxo, 2012ko apirilaren 23a.

Uribeko Eskualdeko zuzendari gerentea,
M.ª LUZ MARQUÉS GONZÁLEZ.